

ASOCIACION VASCO-NAVARRA DE BENEFICENCIA: EUSKALDUNEK KUBAN XIX. MENDEAN SORTURIKO ELKARTEA¹

Jon Ander Ramos Martinez

XIX. mendeko europar migrazioak aztertzerako orduan, kopuruak duen garrantzia gutxietsi barik, pertsona hauen txertatze prozesuan jarriko dugu arreta. Prozesu hauek oso interesgarriak suertatuko dira XIX. mendeko azken hamarraldietan Ameriketara emandako elkarten sorrera aztertzerako orduan. Elkarte hauen helburu nagusia elkarren arteko laguntza zen, bertan zeudenen eta iritsi berri zirenen arteko laguntza hain zuzen.

Orain dela gutxira arte, ikerketa gehienek emigrazioa ikuspegi kuantitatibo batetik aztertu ohi dute. Kopurua ahalik eta zehatzena ezagutzea eta emigrante hauen jatorria eta jomuga ezagutzea izan da helburua². Joan den gizaldiko azken hamarkadan Ameriketako aurkikuntzaren bosgarren urteurrena eta Espainiako azken kolonien galtzearen lehenengo urteurrena ospatzearekin batera “*amerikanismoa*”-k bultzada garrantzitsua jasan zuen. Hamaika ikerketa proiektu abian jarri ziren, emaitza oparoak jasoz. Ospakizun hauetan murgilduta, dirua erruz atera zen erkidegoko gobernuetatik, eta erkidego bakoitzak bere semeen joan-etorriak aztertzeko eta bere bizipenak jasotzeko esfortzu itzelak egin zituzten. Baina egoera oparo honen argitasunaren itzaltzearekin batera, erakundeen interesa ahuldu zen. Hala ere, egindako lana baliagarria izan da, ikerketarako bide berriak zabalduz.

Euskaldunen kasuan³ munduan zehar banatuta dauden euskal etxeen inguruan egindako lanak nabarmendu behar dira. Lan horietan lehendabizi, euskaldunak agertuko

¹ Lan hau, autoreak burutzen ari duen Tesiaren baitan txertatu behar da. Aipatutako Tesia, “Euskal migrazioa Kuban XIX. mendean: Habanako Asociación de Beneficencia Vasco-Navarra (1877-1902)”, Euskaldunak XIX. mendean Kuban sorturiko Asociación Vasco-Navarra de Beneficencia elkartearen azterketa du helburu, horretarako elkarte horren lehendabiziko hogeita bost urte aztertuko dira. Tesi horrek Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Errektoreordetzak Euskarazko Tesiak sustatzeko dirulaguntzaren babesa du (2007-2011)

· *Historian Lizentziatua Euskal Herriko Unibertsitatetan, Oscar Alvarez Gila Doktorearen zuzendaritzapean Doktorego tesia egiten dihardu azken urteetan Amerikaren Historia Sailaren baitan.*

² Lan saila hau, XIX. mendeko amaiera arte irteera erregistroak ez baitzeuden, honi gehitu behar zaizkio klandestinitatean emandako irteerak

³ Euskaldunen kasuan, Eusko Jaurlaritzak bultzaturiko proiektua aipatu behar dugu, Urazandi bilduma. Proiektu honen bitartez mundutik zehar dauden euskal etxeen historiak berreskuratzea nahi da. Dagoeneko bilduma honek hogeitale inguru ditu, besteak beste: ALVAREZ, Adriana, *Historia del centro vasco Denak-Bat, Mar del Plata*, Gasteiz: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2002; ARAYA ARIZTIA, Rubila, *Arrojos, dichas y nostalgias: vascos en el Valparaíso del siglo XX*, Gasteiz: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2006; CAMUS ETCHECOPAR, Argitxu, *The North American Basque Organizations (NABO) incorporated: Ipar Amerikako Euskal Elkartek, 1973-2007*, Gasteiz: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2007; EZKERRO, Mikel, *Historia del Laurak Bat de Buenos Aires*, Gasteiz: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2003; MINERVIONO, Mario [et. al.], *Historia de Unión Vasca de Bahía Blanca*, Gasteiz: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2003; IRIANI ZALAKAIN, Marcelino, *Centro vasco argentino Gure Etxea de Tandil: ¿la punta de un gran iceberg?*, Gasteiz: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2002; ALVAREZ GILA, Oscar, IRIANI ZALAKAIN, Marcelino, *Euskal Echea: la génesis de un sueño (1899-1950): Lavallol*, Gasteiz: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2003; IRIGOYEN ARTETXE, Alberto, *Centro Euskaro de Montevideo o La Dialéctica del ser*, Gasteiz: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2003; IRUJO, Xabier, IRIGOYEN ARTETXE, Alberto, *La sociedad de confraternidad vasca “Euskal Erria” de Montevideo (Uruguay)*, Gasteiz: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2007; TOTERICAGUENA, Gloria, *Diáspora*

dira, mugaz gaindi, talde etniko moduan elkartuta. Euskal etxeetako historiak berreskuratu dira, baina euskaldunak elkarri laguntzeko sortutako ongintzazko elkarteei buruz, Galizian eta Asturiasen ez bezala, ezer gutxi dakigu.

Elkarte hauen ikerketak baldintzatzen du migrazioen ulermena. Ereduari dagokienez mota desberdinak agertuko dira, herrialde eta garaiaren arabera. Alde batetik, esparru nazionaleko elkarteak agertuko dira, geroago esparru geografiko txikiagoko elkarteak agertuko dira (erkidegokoak, bailarakoak,...)⁴. Aniztasun hau ulertzeko, kontuan izan behar da emigranteak jasotzen duen herrialdearen egoera, espainiar kolonia izatea edo ez, Kuban gertatzen de moduan. Berez 1898. urtera arte Espainiako lurraldea baitzen.

Jarraian euskaldunak Kuban sortutako elkarteak aztertuko dugu; daukagun informazioa eta elkartearen nondik norakoak aztertuko ditugu.

1.-Bibliografia eta iturriak

Kubara joan ziren espainiar emigranteen iragana aztertzerako orduan, hagitx garrantzitsua izango da Kubako gizarteak eginiko harrera ezagutzea. Kuban emandako asoziazionismoa batez ere Kanariak, Galizia eta Asturiasko kasuan ikertu da, hau da, emigrante gehien eskaini zituzten autonomi erkidegoak. Orokorrean, asoziazionismoari buruz dakiguna oso gutxi da, nahiz eta azken urteetan historiaren alderdi horiek berreskuratu nahian egiten ari diren esfortzuak garrantzitsuak izan. Historiaren berreskurapen hori batez ere bultzatzen da gaur egun Kuban bizirik mantentzen diren elkartetik eta autonomi erkidegoetako gobernuek eskainitako laguntzari esker. Honi gehitu behar zaizkio, azken urteetan agertu diren ikerlarien lanak, bai Espainiakoak baita Kubakoak ere. Ikerketak ugaltu egin baitira eta ziurrenik datozen urteetan ikerketa hauek sakonduko egingo dira eta asoziazionismoa hobeto ezagutzeko aukera izango dugu⁵.

Euskaldunen kasuan, gutxi dakigu oraindik *Asociación Vasco-Navarra de Beneficencia*-ri (hemendik aurrera AVNB) buruz. Egun elkarteak bizi duen egoera ez da oso ona, eta bere historia berreskuratzeko ahaleginak urriak dira. Honetaz gain, elkartearen artxiboaren materialaren zati garrantzitsu bat betirako galdu da, historiaren zati bat ilunpean geratuz. Azken urteetan, eta Eusko Jaurlaritzaren proiektu bati esker, Irigoyen Artetxek artxibo honen digitalizazioa burutu du⁶. Proiektuaren helburuetariko

vasca comparada: etnicidad, cultura y política en las colectividades vascas, Gasteiz: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2003.

⁴ Ikusi: NUÑEZ SEIXAS, Xosé Manoel, *Inmigrantes gallegos en Cuba: Algunas notas sobre política y asociacionismo (1898-1936)*; *La parroquia de ultramar: Redes sociales y asociacionismo inmigrante gallego en la Argentina (1880-1940)*. Argitaratu gabeko artikuloak, autoreak 2007ko ekainean ematez bidalitakoak.

⁵ Zentsu honetan hurrengo lanak aipatu behar dira: Barcia Zequeira, María del Carmen, “La sociabilidad de las capas populares en la conformación de una sociedad moderna. Cuba (1880-1930)”, in *Historia y memoria: sociedad, cultura y vida cotidiana en Cuba 1878-1917*. Centro de Investigaciones y Desarrollo de la Cultura Cubana Juan Marinello, Programa de estudios de América Latina y el Caribe. Instituto Internacional Universidad de Michigan. La Habana, 2003; Fernández, Aurea Matilde: “Evolución de las sociedades españolas en Cuba a lo largo del siglo XX”, in *Debates Americanos*, 12, urtarrila-abendua 2002, La Habana, 158-164. orr.; González Pages, Julio Cesar: *Emigración de mujeres gallegas a Cuba: Las Hijas de Galicia*, Departamento de Cultura, Ayuntamiento de Vigo, [datarik gabea]; Lahuiller Chaviano, R., “La transformación de los espacios de sociabilidad en la Cuba finisecular: la Asociación de Dependientes del Comercio de La Habana”, in *Revista Mínius*, XIV, Universidad de Vigo, 2006, 171-190. orr.

⁶ Digitalizazio hau Eusko Jaurlaritzak abian jarritako “Urazandi Digital” proiektuaren barnean sartu behar dugu. Proiektu honek euskal elkarten fondoak, eta Ameriketara agertutako egunkari zein aldizkariak digitalizatzea du xede.

bat, beste batzuen artean, materialaren erregistroa eta sailkapena izan da, elkartearen memoria babestu nahian. Itzelezko lan hau, etorkizuneko ikerlariontzako benetan lagungarria izango da, kontsulta beharreko materiala euskaldunek Kuban bizi izandakoa noizbait ezagutu gura badugu, 1877-tik gaur egun arte.

Beraz, gaur egun oso gutxi dakigu euskaldunak Kuban bildu zituen elkarteari buruz. Amores Carredanok⁷ elkarte honen sortze prozesua aztertu du, eta fundazio guzti horien sorreran, arrazoi etniko eta lurraldetasunak bultzatutako elkartegintza informala ikusten du oinarri. Era honetako elkarteak 1860-ko hamarkadaz geroztik irlan agertuko dira, espainiar gobernuak elkarteak sortzeko eskubidea baimentzen duenean⁸. Autoreak deskribatzen digu elkartearen funtzionatzeko era:

“con una cuota de medio peso mensual atendían todas sus actividades, entre las que destacaron la construcción del Panteón Laurac bat en el cementerio de Colón de La Habana para enterrar a los miembros de la Asociación, el pago de los honorarios médicos y dietas de estancia en hospitales, ayudas para el pasaje de los que decidían regresar a España, ayudas mensuales en metálico a pobres de solemnidad y una gran variedad de socorros extraordinarios”⁹

Lan honetan, zeinean autoreak aztertzen duen nafarren presentzia Kuban koloniaren azken urteetan, elkartean sortzen diren nafarrei buruzko albisteetan zentratzen da batez ere. Horrela adierazten du, nafarren kopurua %20koa zela, Bizkaiaren atzetik, hobeto ordezkatuak zeudenak¹⁰. Nahiz eta Habanan bere presentzia urria izan, gehienak Cienfuegos-eko zonaldean biltzen ziren, elkarteak zonalde horretan zuen sukurtsalak, elkartearen nafarren %50a biltzen zuen.

Arrozarenak¹¹, aldiz, bere lanetan elkarteari buruz datu eskasak eskaintzen dizkigu. 1877ko fundazioaz gain, eta elkartearen helburuaz gain, elkartearen zaindaria aipatzen du, zazpi probintzietako estandarteaz ere hitz egiten du. Apirilean Begoñako Ama Birjinari eskaintzen zaion meza ere aipatzen du, eta nola azaroaren 2an urtero hildakoen alde egiten zen meza Colon hilerrian elkarteak zuen Laurac bat panteoiaren kaperan.

Beraz, orain arte Habanako AVNB-ren buruz idatzitakoa oso urria da. Ikertzeke dagoen gai bat da, eta ikerketa hori egiteko abiapuntu ezinbestekoa elkartearen artxiboa izango da. Arestian aipatu dugun bezala, dokumentazio guzti hau digitalizatuta dugu, hainbat ataletan sailkatua izan delarik:

- Elkartearen Aktak
- Oharrak
- Gutunak
- Sorospenak
- Bazkideen dokumentazioa
- Elkarteen erregistroen dokumentazioa
- Diruzaintzaren dokumentazioa

⁷ AMORES CARREDANO, Juan Bosco, “Los Navarros y la Asociación Vasco-Navarra de Beneficencia de La Habana” in Óscar Álvarez Gila, Alberto Angulo Morales (arg.), *Las Migraciones vascas en perspectiva histórica (siglo XVI-XX)*, Bilbo : Euskal Herriko Unibertsitatea, 2002, 235-258. orr.

⁸ Autoreak nota batean zera dio, 1860. urtean Fermin Fernandezek, Pedro Lemonceurak eta Diego Ochandorenak euskaldunei eta nafarrei osasun zerbitzua eskaintzeko ospitale bat eraikitzea proposatzen dutela (Archivo Nacional de Cuba, Gobierno Superior Civil, leg. 16147, nº 411).

⁹ AMORES CARREDANO, Juan Bosco, “Los Navarros ...” 250. orr.

¹⁰ Lanaren amaieran elkartean hasierako urteetan zeuden nafarren zerrenda eskaintzen du.

¹¹ ARROZARENA, Cecilia, *El roble y la Ceiba. Historia de los vascos en Cuba*, Tafalla : Txalaparta, 2003, 199. orr.; *Los vascos en las guerras de independencia de Cuba (glosas a una historia por escribir)*, argitaratu gabeko lana, zirriborroaren kopia Alberto Irigoyen Artetxek utzitakoa.

- Laurac bat panteoiaren dokumentazioa
- Bazkideen espedienteak
- Beste dokumentu motak

Bazkide zerrendei buruzko dokumentuak ditugu, elkartetik noiz sartzen / irteten ziren, hilabetero bazkide bakoitzak ordaindu beharreko kuota, aurrera jarraitzeko edo bizirauteko zailtasunak zituzten pertsonen eskaerak, Elkartearen Zuzendaritza Batzordeak hilabetero burutzen zuen bileraren aktak, Habanan Colon hilerriko *Laurac bat* panteoiaren inguruan sortutako dokumentazio itzela. Material andana honek, 40.000 orri inguru, behin berrikusita, Elkarteari buruzko informazioa eskainiko digu, azken 100 urteetan bizi izandako gorabeherak. Zailtasunez beteriko historia, zenbait momentutan elkarte desagertzeko zorian utzi duena.

2.- Sorrera

Elkarte honen fundazioari buruz dagoen lehendabiziko erreferentzia 1877ko otsailaren 26koa da.

*El Ilmo. Sr. Gobernador General, me dice con fecha 10 del actual lo que sigue: Ilmo. Sr. El Excmo. Sr. Gobernador General se ha servido autorizar al Excmo. Sr. Don Joaquín Calbetón para celebrar una reunión de naturales de las provincias Vascongadas y Navarra, con objeto de acordar las bases en que ha de fundarse una asociación de beneficencia para los hijos de dichas provincias*¹²

Behin Espainiako gobernuak Kuban zituen ordezkarien baimena lortuta, proiektuaren bultzatzaileak bilera batera gonbidatu zituzten euskaldun guztiak, Euskal Herriko probintzia guztietako naturalak bilduko zituen ongizate elkarte abian jartzeko asmoz¹³. Deialdia, gutunen eta prentsan bidez eginikoa, 1877ko martxoaren Erramu domekarako Casino Españolek Habanan zuen lokalean burutuko zen bilerara interesa zuten orori luzatu zitzaion. Bilera horretan¹⁴, non jende ugari agertu zen, lehendakari eta idazkari baten izendapena erabaki zen eta kargu hauek Joaquín Calbetón eta Luis Aparicio Fernández-ek hartu zituzten. Lehendakari berriak, Joaquín Calbetón berak, bi komisioen izendapena proposatu zuen, bat arautegiaren ekoizpenaz arduratzeko eta beste bat bazkideen izen ematea kontrolatzeko¹⁵.

Apirilaren 8an egindako hurrengo bileran bazkideek arautegia onartu zuten, eta erabaki zen kopia bat igortzea Gobernadore Orokorrari, honek onartu zezan¹⁶. 1877ko maiatzaren 22an onartutako behin betiko arautegiak elkarte berri horren izena zehazten zuen, “Asociación Benéfica de naturales de las Provincias Vascongadas y Navarra”.

¹² Habanako Alkateak Joaquín Calbetóni igorritako gutuna, Habanan 1877. urteko otsailaren 26an. Archivo de la Asociación Vasco Navarra de Beneficencia, Legajo 16, Expediente 1, 32 zbk.

¹³ Adiskidetatutako probintziak moduan agertzen direnak.

¹⁴ Leg. 1-Exp. 1. Lehen bileraren Akta 1877. urteko apirilean datatua, baina dirudienez gerora zuzenketa bat agertzen da bertan. Eta horren arabera bilera hilabete bat lehenago burutu zen, hau da, martxoaren 25ean. Akats honen nondik norakoak, *La Voz de Cuba* egunkarian agertutako iragarki batean aurkitzen dugu. Bertan agertzen da ere, nola bigarren bilera apirilaren 8an burutu zen.

¹⁵ Julián de Zulueta, Fermín Calbetón, Ramón María de Iraiztegui, Mariano Oiz y Félix López de Calle. Mientras que la comisión de Socios la integraron, Baltasar OTamendi, Narciso Barbier, José Arcocha, Manuel Artola, Claudio Delgado, Tomás Goiri, Modesto Ortiz, José Otaduy, Pascual Unanue, Benigno Guerendiain, José Garvizu, Antonio Aspiazu, Francisco Iturriza eta Benito Goicoechea osatzen zuten arautegia ekoizteko sortutako komisioa.

¹⁶ Irigoyen Artechek dio, bilera hau tramite hutsa izan zela, berez arautegia aurrez igorrita zegoen Irlako Gobernadore Orokorrari apirilak 4 datarekin, hau da, arautegia eztabaidatzeko bilera hori burutu baino lau egun lehenago.

Azkenean, ekainaren 17an burututako hirugarren bilera horretan, Zuzendaritza Batzordea izendatzeko hauteskundeak burutu ziren, hurrengo emaitzak lortuz:

1. koadroa

ABVN-ko Zuzendaritza Batzordea eratzeke 1877ko ekainean burututako hauteskundeak

Lehendakaria:	Joaquín Calbetón		
Lehendakariordea			
:	Francisco Durañona		
Diruzaintza:	Segundo Rigal		
Idazkaria:	Fermín Calbetón		
		Ordezkarriak	
Kideak:	Julián de Zulueta	:	Manuel Izaguirre
	Manuel Calvo		José Arcocha
	Vicente Galavia		Modesto Ortiz
	José Bidaguren		Benigno Guerendiaín
	Antonio Telleria		Francisco Cuadra
	Baltasar Otamendi		Manuel Artola
	Mariano Oiz		Juan de Zumalacarregrui
	Pablo Gamiz		José Garviso
	José Inda		Ramón Artega
	Manuel Maruri		Javier Peralta
	Pablo Tapia		Iganacio Jauregui
	Jose María Zarraluqui		Leandro Goicoechea

Iturria: Ekoizpen propioa

AVNB erakundearen fundazioarekin, ofizialtasun osoz 1877ko uztailean¹⁷ eratuta, XIX. mendeko Amerikako laugarren elkarte euskalduna sortu zen, aurrekariak izanik Matanzas-ko elkarte¹⁸, Kuban 1868an sortua; Montevideo-koa 1876ko abenduan¹⁹ sortua; eta Buenos Aires-en 1877ko martxoan²⁰ sorturikoa, biak Laurak Bat izenarekin bataiatuak.

Laurogeita hamar eguneko epe laburrean, leku desberdinetan eta bata bestetik urrun, Kuba eta Plata ibaiaren arroak, euskaldunek ideia bera izan zuten, hots, elkarren artean babesteko sorospen elkarteak sortzeko asmoa. Beraz, kontuan izan behar dugu hurrengo hipotesia, inizatiba hauek elkarren artean nolabaiteko lotura izan zuten, eta lotura hori euskal foruen abolizioa, 1876ko uztailearen 21eko legearen arabera, izan zitekeela. Lotura hau egitea ez zen nolana hiko lana izango. Buenos Aires-eko euskal elkartearen

¹⁷ Palacios herriko Julián Santibañezi 1879. urteko martxoaren 14ean Zuzendaritzak igorritako gutunean AVNBri buruz hitz egiterako orduan zera dio: “desde su fundación en julio de 1877”. Archivo de la Asociación Vasco Navarra de Beneficencia, Leg. 129 – Exp. 1.

¹⁸ Cecilia Arrozarenak, bere lanean, *Los vascos en las guerras de independencia de Cuba (glosas a una historia por escribir)* argitaratu gabe, Matanzaseko Artxibo Historiko Probintzian kokatzen den expediente bati buruz hitz egiten digu. Dokumentu horren arabera 1868. urtean “Sociedad Vascongada de Matanzas” elkarte sortu zen, hau da, Habanako AVNB sortu baino bederatzita urte lehenago. Dirudienek elkarte honek urte bakar bat biziraun zuen, eta 1869. urteko apirilera deseginda zegoen.

¹⁹ IRIGOYEN, Alberto, *Laurak Bat de ...*, 1999, 73. orr.

²⁰ EZKERRO, Mikel, *Historia del Laurak Bat ...*, 2003, 28. orr. Lehendabiziko bileraren arabera zehazten dugu elkarte hauen sorrera.

kasuan erlazioa argi dago, zeren eta bere helburuen artean jasota zegoen bitarteko guztiak jarriko zituztela Euskal Herriarekiko eta foruekiko maitasuna mantentzeko, urtero aldarrikapen egun bat zehaztuz, foruen desagertzearen desadostasuna adierazteko²¹. Montevideoren kasuan, ordea, zailtasuna handiagoa da. Elkartea sortzerakoan, Euskal Herriak bizi zuen egoera kezkarria aipatzen zen, baina ez zuten idatzi afera politikoei erreparatu, baizik eta giza arrazoiak kontuan hartuz.

*...notorio es el triste estado en que los sucesos de un reciente pasado han conducido a nuestras queridas provincias y no es aventurado suponer que, visto el estado de cosas de que nos instruyen los últimos correos de la Península española, se hallan amenazadas las poblaciones de esas provincias de sufrir nuevos males en el futuro. Este temor, que consideramos justo ha de avivar en el ámbito de esas poblaciones la idea de procurar por la emigración el sustraerse a las condiciones de existencia precaria en que los sucesos pasados las vienen colocando, y que se agravarán indudablemente si se desarrollan los sucesos políticos que hoy se prevén...*²²

Are zailagoa da lotura hau ezartzea Kuban, ez arautegian ezta aktetan ere ez dugu topatu inolako aipamen politikorik. *Laurac bat* astekarian²³, Habanan Faustino Diez Gaviño-ren zuzendaritzapean argitaratua 1886 geroztik, foruen aldeko jarrera argia erakutsi zuen, baina inoiz agertu zen elkarteren bozeramaile moduan, eta sekula ez zen egon elkarre honen menpe. Gainera berandu agertzeak, elkartea sortu eta bederatzi urte beranduago, itzalean uzten ditu tartean gelditzen diren bederatzi urte.

Kubaren kasuan, ez dugu ahaztu behar Antilla Handia XIX. mendearen erdialdera oraindik errentagarria zela, ekonomikoki, Espainiar Koroarentzat. Bertako biztanleek oraindik ez zituzten gutxienezko zerbitzu sozialak, hala nola, segurtasuna, medikuntza eskaintza, hezkuntza. Honek eragin zuen erkidego batzuk euren sorospen elkarrean sortzea. Elkarre berri hauen agerpena areagotu zen 1876-ko elkarre legea indarrean sartu zenean. Hazkunde hau, gainera, bat etorri zen 1880-1930-an Espainian bizi izandako emigratzeko gorakada itzelarekin. Barcia Zequeirak dio 1882-1911 bitartean Espainiako emigranteen %78a zirela batez ere gizonezkoak, nekazal inguruetatik edo garapen urriko hiriguneetatik etorriak, kualifikazio gutxiko eskulana eta, beraz, eskulan merkea²⁴.

Irigoyen Artetxek²⁵ aipatutako ideari jarraituz, Habanako AVNBren fundazioan, nahiz eta 1876ko foru abolizioarekin eta beste leku batzuetako era bereko elkarrean sortzearekin denboran bat egin, kasu honetan arrazoiak beste era batekoak izan ziren. Arrazoi horiek, Espainiako Gorteak bere azken kolonia espainiarra eta zuria bihurtzeko ahaleginetan eta industria-jabeek (espainiarrak gehienak) langile merkeak lortzeko nahian topatuko ditugu. Bai eta, oso bestelakoa izanik ere, azken finean Espainiako eskualde bat gehiago zen lurraldera joateak zekartzan abantailetan ere.

²¹ AZCONA PASTOR, José, MURU, Fernando, GARCIA ALBI, Inés, *Historia de la emigración vasca a Argentina en el siglo XX*, Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Gasteiz, 1999, 229. orr.

²² IRIGOYEN, Alberto, *Laurac Bat de ...*, 1999, 77. orr.

²³ Astekari honen inguruan ikusi: RAMOS MARTINEZ, Jon Ander, *Los inicios de la prensa vasca en Cuba: Laurac Bat de la Habana (1886-1895)*, 2006ko maiatzaren 4tik 6ra bitartean Montevideon burututako III Nazioarteko Euskal Herria Mugaz Gaindi Mintegian aurkeztutako lana (www.euskosare.org/ikertzaileak/ehmg_3).

²⁴ BARCIA ZEQUEIRA, María del Carmen, "Un modelo de emigración favorecida: el traslado masivo de españoles a Cuba (1880-1930)" Catauro 4, La Cultura Hispánica, 2. urtea, 2001. Argitarapen digitala.

²⁵ Argitaratu gabeko lana, bertan autoreak AVNBren historia berridazten du elkarre horrek sortutako dokumentuetatik abiatuta. Zirriborroak autoreak 2007ko uztailean bidalita.

3.- Izaera

Elkartearen funtzioen artean, garrantzitsuenaren zen “...socorrer a cuantos vascongados y navarros necesiten e imploren el auxilio de la misma...”. Elkartearen arautegia betetz, zuzendaritzaren partaideak hilabetero elkartzen ziren, Lehendakariak deituak, elkartera iritsitako laguntza eskaerak sakonean aztertze²⁶. Behin eskaera hori irakurrita, zuzendaritzak ordezkari bat hautatzen zuen edo, medikua behar izanez gero, eskatzaileari bisita egiteko eta laguntza behar hori baieztatzeko edo ezeztatzeko. Baiezkoa izanez gero, ordezkari honek laguntzaren kantitatea zehazten zuen. Orokorrean, laguntza eskaera gehienak muturreko pobreziak eraginda ziren, zenbait kasuetan pobrezia egoera honi gaixotasun larriak, istripuak eragindako elbarritasunak, senide baten heriotzak, edota imajinaezinezko beste hainbat zorigaitz gehitzen zitzaizkion. Elkartearen helburua ahalik eta laguntza gehien eskaintzea zen, betiere euren aukeren arabera²⁷.

Askotan, medikuaren informea hala agintzen zuenean, elkarteak Penintsulara itzultzeko bidaiaren kostea bere gain hartzen zuen²⁸, horrela gertatu zen Nafarroako adineko batekin. Kasu horretan elkarteak, berezko sentiberatasuna erakutsiz, gastu hauen kargu hartu zuen gorputzaren eta arimaren gaitzak leundu nahian.

*...Don Felipe Ibuzquiza Fernández, natural de Sesma, provincia de Navarra, de 67 años de edad: Que encontrándose ciego y falto de recursos y deseando pasar a su país natal al abrigo de un hijo que allí tiene, ruega se le conceda el pasaje para tener el consuelo de ver acabar sus días al lado de su hijo...*²⁹

Laguntza eskaera horiek eztabaidatzerako orduan, aldez aurretik adostutako gidoia jarraitzen zen, baina askotan, gai korapilatsuen kasuetan, elkartearen kanpo gelditzen ziren beste berriemaileengana jotzen zen informazio gehiagoren eske, eskatzailearen profila ondo ezagutu nahian. Horrela askotan udalaren, apezaren, udaltzaingoaren edota bizilagunen testigantza eskatzen zen, egindako txostena ahalik eta zehatzagoa izan zedin.

Gehien bat elkarteak euskaldunei eskaintzen ziren laguntza, euren eta euren senitartekoei, hauek bazkide izan ala ez, baina laguntza eskaini ziren ere elkartez kanpoko beste pertsoneri, hauek elkarte propioa ez zutenean edo, nahiz eta elkarte baten bazkide izan, hau arazoari bakarrik aurre egiteko kapaz ez izan eta beste elkartearen laguntza behar ezker³⁰.

Behar gorrian zeuden bazkideei, edo erkideei laguntzeaz aparte, sorosmen laguntzak banatu ziren irlako bazter guztietan, hondamendi naturalek edo gaixotasunek Kubako

²⁶ Eskaerak aktetan jasoak zeuden, eta normalean zuzendariak aurkezten zituzten, edo eskatzaileak berak. Beste batzuetan elkarteak irlako hainbat hirietan zituen komisarioak edo bazkideak. Edonola ere, beharrezko azen eskaera orri hauek eskatzailearen sinadura izatea.

²⁷ Gaixotasun kasuetan eskatzaileak ospitaletan ingresatuak izaten ziren, eta elkarteak bere gain hartzen zituen sortutako gastuak. Ez ziren gutxi izan euskal zahar bakartiak euren azken egunak, dirurik gabe eta senideen laguntzarik gabe, bere bizitzaren azken egunak elkarteen babespean pasatzera behartuta ikusi zirenak.

²⁸ Bidai horietarako Compañía Transatlanticaren borondate ona alde zuten, gogoratu behar da enpresa honen kudeatzailea irlan Manuel Calvo y Agirre zela, bidai saria bereziak hitzartuta zituzten (bigarren eta hirugarren mailan bidaiatzeko). Enpresa honek Santander-Habana bidaiak egiten zituen.

²⁹ Archivo de la Asociación Vasco Navarra de Beneficencia, Leg. 1 – Exp. 2. Libro de Actas nº 2. Junta del 7 de abril de 1884, 123-124. orr.

³⁰ Gai honen harira, Lorenzo Ibarrek, elkartearen diruzaina, 1882ko irailaren 4an egindako bileran, bazkideak zirenei atentzio berezia eskaini behar ziela agertu zuen, bazkide gehiago lortzeko modu bezala, eta era berean diru iturriak handitzeko.

gizartea astintzen zutenean³¹, edo itsasoaren beste aldera bideratzen ziren Penintsulan kaltetuak izandakoei laguntzeko, edo giza- zein erlijio-ekimenak babesten zituen. Zentzu horretan hamaika adibide ditugu, besteak beste:

- 1885ko urria – Loiolako Jesuiten Monastegian egindako lanak.
- 1885ko urria – Nafarroako uholdeetan kaltetuak izandakoei laguntza.
- 1885ko urria – Penintsulan kolera izurriten kaltetuak izandakoei laguntza.
- 1886ko otsaila – Bermeo udalerriko ongintza batzarrak bultzatutako pobreentzat ospitalea eraikitzeko laguntza³².
- 1889ko abuztua – Araban eta Nafarroan eguraldi txarraren ondorioz kaltetuak izandakoei laguntza³³.
- 1890ko ekaina – Pasaian eguraldi txarraren ondorioz kaltetuak izandakoei laguntza.³⁴
- 1892ko azaroa – Donostian itsasoan galdutakoen familiei laguntza.³⁵
- 1893ko azaroa – Melillan gertatutakoaren kaltetuei laguntza.³⁶
- 1893ko azaroa – Santanderren bizi izandako hondamendien ondorioz, kaltetuei laguntza.³⁷

Laguntzen ebazpen prozesua idatzizko eskari batekin hasten zen, zeinean eskatzaileak bere euskal jatorria baieztatu eta gero bere egoeraren deskribapena aipatzen zuen. Muturreko pobreziaren kasuetan Zuzendaritzak ordezkari bat izendatzen zuen eskatzaileari bisita egiteko, berak azaldutakoa egiaztatzeko eta dagokion diru kopurua zehazteko. Gaixotasun larrien kasuetan pauso berak jarraitzen ziren, baina ordezkaria kasu horretan medikua izaten zen. Honek gaixoa ikusi ondoren, sendatzeko bitartekoak jartzen zituen; ospitalera bidali, botikak erosteko laguntzak eskaini, etab.

Kasu batzuen larrialdia zela eta, senide baten hileta elizkizunak ordaintzeko, itzulerako ordain-saria ordaintzeko itsasontziaren irteera berehalakoa zenean, gaixotasun larriei edota muturreko pobreak, normaltasunez eskaera hauei erantzuna ematea zaila izaten zen, zeren Zuzendaritza Batzordearen bilerak hilabete behin egiten ziren. Horregatik, kasu hauetan Zuzendariak, bere kabuz, azkar erabaki behar zuen eskatzaileari laguntza eman ala ez, eta baiezkkoa zenean laguntzaren kopurua zehaztea.

4.- Ondorioak

³¹ 1887ko abuztuaren 30ean diru laguntza bidali zen Santiago de Cubara baztanga izurritea pairatu zutenei lagundu nahian

³² Archivo de la Asociación Vasco Navarra de Beneficencia, Leg. 1 – Exp. 3; Libro de Actas, Junta del 15 de febrero de 1886. 77. orr.

³³ Archivo de la Asociación Vasco Navarra de Beneficencia, Leg. 1 – Exp. 11; Libro de Actas, Junta del 5 de agosto de 1889. 113. orr.

³⁴ Archivo de la Asociación Vasco Navarra de Beneficencia, Leg. 129 – Exp. 4; Libro de Comunicaciones, 10 de junio de 1890

³⁵ Archivo de la Asociación Vasco Navarra de Beneficencia, Leg. 1 – Exp. 10; Libro de Actas, Junta del 7 de noviembre de 1886. 64. orr.

³⁶ Archivo de la Asociación Vasco Navarra de Beneficencia, Leg. 129 – Exp. 4; Libro de Comunicaciones, [s.f.] noviembre de 1893.

³⁷ Archivo de la Asociación Vasco Navarra de Beneficencia, Leg. 129 – Exp. 4; Libro de Comunicaciones, [s.f.] noviembre de 1893.

Elkartearen sorrera eta izaera aztertuta, argi gelditu da honen helburu nagusia elkarren arteko laguntza zela. Puntu horretatik abiatuz eta kontuan izanik AVNB euskaldun bilgune bihurtu zela 1877tik aurrera, garrantzitsua izango da oso kolektibitate honen azterketa, XIX. mendeko Kubako gizartean izandako papera, eta Espainiako beste kolektibitateekin izandako erlazioa. Galizia eta Asturiasko kasuetarako egindako ikerketan oinarrituz, eta oro har elkarte etnikoen inguruan dagoen bibliografian oinarrituz, zenbait antzekotasun ikusten dugu, elkarte hauen funtzionatzeko eran. Aipatu beharreko lehenengo gauza zera da, taldearekiko agertzen den atxikimendua, beti pertsonaren bat nabarmenduko da taldean, bai alderdi politikoan baita ekonomikoan ere. Horrela pertsona hauek euren aberrikoei lagunduz, hauen babesari lortzen zuten (*gizarte kapitala* kontzeptupean sar dezakeguna).

Azken finean sorosmenean egindako inbertsioa errentagarria zen (ez ahaztu elkarte horren izenean *beneficencia* hitza dagoela), horrela pertsona hauek kolektibitatearen buru bihurtzen ziren, batez ere historiografia anglo-saxoiarrean *ethnic leadership* moduan ezagutzen dena.

Euskal kasuarendako, ausartzen gara aurreratzen Manuel Calvo Agirre³⁸ euskal kolektibitatearen barruan izandako papera garrantzitsua izan zela, kolektibitatearen buru bezala agertuko zaigu. Elkarte honen bultzatzailetariko bat izan zela uste dugu, *Laurac bat* aldizkariaren sortzailetariko bat ere izan zelarik. Aldizkari hau 1886. urtean sortu zen, eta elkartearen prentsa ofiziala ez izan arren, lotura estua ikusten da euskaldunentzat sortutako bi ekimen hauen artean.

³⁸ Ikusi: Jon Ander RAMOS MARTÍNEZ, “Manuel Calvo y Aguirre, una eminencia en la sombra” in Guregandik. Revista del centro de estudios Arturo Campion. 4. 2008, 210-227. orr.